

Funtsesko elkarteak:

Proiektua behar bezala garatu eta epe luzera bideragarria izan dadin, funtsezkoa da bazkide eta hornitzaile estrategikoen sare sendo bat izatea. Elkarte hauek dira negozio-eredua funtzionatzea ahalbidetzen duten oinarrizko eragileak, eta hainbat helbururekin ezartzen dira: negozio-eredua optimizatzeko, arrisku operatiboak murrizteko eta proiektua garatzeko beharrezko baliabideak eskuratzeko.

Testuinguru horretan, FCCrekin lankidetza estrategikoa aurreikusten da materialaren bilketarako. Hondakinen kudeaketan duen esperientziari esker, FCCk lehengaien hornidura egonkorra eta eraginkorra bermatuko luke, prozesu logistikoak optimizatuz eta hornidura-arriskuak murriztuz. Bazkide hau funtsezkoa da proiektuaren jarduera nagusia gauzatu ahal izateko.

Bestalde, Iberdrola izango litzateke energia-hornitzaile nagusia, energia berriztagarriak eskainiz. Elkarte honek aukera ematen du jarduera jasangarriagoa garatzeko, ingurumen-inpaktua murrizteko eta energia-kostuak optimizatzeko. Gainera, proiektuaren balio-proposamena indartzen du jasangarritasunarekiko konpromiso argia erakutsiz.

Halaber, Loreak Mendian markarekin lankidetza ezartzea aurreikusten da, haiek erabiltzen ez duten arropa gure proiekturako emango luketelako. Elkarte honen bidez, bestela baztertuko liratekeen baliabideak berrerabili ahal izango dira, ekonomia zirkularra sustatuz eta gure lehengai nagusietako bat modu arduratsuan eskuratuz. Bazkide honek funtsezko rola du baliabideen eskuragarritasuna eta jasangarritasuna bermatzeko.

Era berean, udalekin lankidetza estrategikoa izango litzateke, edukiontzira botatzekoa den arropa gure proiektura bideratzeko. Tokiko administrazioek proiektuari babes instituzionala emango liokete, gizarte- eta ingurumen-eragina handituz eta herritarren parte-hartzea sustatuz. Eragile hauek giltzarriak dira tokiko mailan proiektua garatu eta sendotzeko.

Azkenik, joint venture motako elkarteak ezartzea aurreikusten da, beste eragile batzuekin baliabide ekonomikoak, teknikoak eta estrategikoak partekatzeko. Lankidetza mota honek arriskuak murrizten ditu, ezagutza partekatzeko ahalbidetzen du eta negozio-ereduaren eskalagarritasuna errazten du.

Ondorioz, bazkide eta hornitzaile bakoitzak rol argi eta lehenetsia du projektuan. Guztien arteko lankidetzari esker, negozio-eredua optimizatu, arriskuak murriztu eta proiektua aurrera eramateko beharrezko baliabideak modu eraginkorrean eskuratzen dira. Elkarte-sare hau, beraz, funtsezkoa da proiektua arrakastaz garatzeko eta epe luzera bideragarria izan dadin.